

Lan hitzarmenaren sinaduraren ondotik hainbat gai garatzen gabiltza



Barne sustapenak

Lan hitzarmenean sortu diren kategoria berriak diren sukaldeburu eta garbitzaileburuak hautatzeko barne sustapena egiteko araudia negoziatzen ari gara. Halaber, Sare eta sistema informatikoen kudeaketarako langileen esleipen prozesua burutzeko ekarpenak egin ditugu.

Sukalde berriak

Bestalde, Begoña Pedrosa sailburuak azaldu du, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zentroetan in situ egingo direla sei sukalde berri, eta sare publiko osoan pixkanaka in situ sukaldeak eta zonakako sukaldeak jartzea aurreikusten dituztela. Gauzak horrela, Sukalde eta garbiketako lan hitzarmenaren 12. artikuluan sinatutakoa aintzat hartu behar denez, informazioa guztia jasotzea eskatu dugu.

Lanpostu berriak eta egutegia

Bestalde, lan hitzarmen berriko ratio eta lan orduen jaitsierak ekarriko duen lanpostu berrien sorrera egiteko aurreikuspena egitea eskatu dugu.

Administrazioa LABetik eskatu genuen bezala metrajeen errebisioa eta obra berrietako metrajea egiten dabil.

Lan hitzarmen berriaren ondorioz egutegia egiteko irizpideak aldatu direnez, hauek, ordezkartzetara bidaltzea eskatu dugu.

Mahai negoziatzailean lan hitzarmena sinatzearen ondorioz hainbat prozesu eta negoziazioei ekin diegu.

Bestalde, finko berrien sinadura uztaileira atzeratuko da eta Ordezkapenak betetzeko arazoari irtenbidea emateko proposamenak egin ditugu.

Ordezkapenak

Ordezkapidea itxi da eta garbitzaileak uztailean lanean jarraitzen dutela eta hauen ordezkapenak telefonoz egin beharko dituztela esan diogu administrazioari. Horrela egingo dituztela esan dute, gainera, zuzendaritzetara ordezkapenak eskatu behar dituztela jakinarazi dutela. Norberaren eginkizunetarako egunak, azkenengo ikasturteetan bezala, iraila eta urrian eskatzeko aukera izatea eskatu dugu.

Ordezkapenak betetzeko dauden zailtasunak ikusita eta sukalderen ordezkak falta direnean LABetik eskatu genuen protokoloa ikastetxeetara bidali da.

Lan hitzarmenean sinatu dugun bezala, hurrengo ikasturtean ordezkoen zerrendak irekita mantenduko dira. Hau horrela izan arte, salbuespenez titulaziorik gabe izena emateko aukera izatea aztertuko dutela esan dute.

Meritu bidezko LEP prozesua

Kontratu finkoen sinadurak uztaileira atzeratu dira, ordezkartzetan eta presentziala izango da. Ostean, ukoengatik hutsik geratu direnak erreserbako zerrendakoei eskainiko zaizkie, hurrenkera eta egin duten aukeraketaren arabera.

Azkenik, uztailean egiteko eskatu dugun mahai negoziatzailean, funtzioak, Sare eta sistema informatikoen kudeaketarako langileen esleipenak, sukalde eta garbiketaren sortu behar diren lanpostuak, esleipenak eta funtzioak landuko dira.

Tras la firma del convenio laboral estamos desarrollando varios temas



Promociones internas

Se está negociando la normativa para la promoción interna para la selección de jefes o jefas de cocina y de limpieza, nuevas categorías creadas en el convenio laboral. Asimismo, hemos realizado aportaciones para llevar a cabo el proceso de adjudicación de personal para la gestión de redes y sistemas informáticos.

Nuevas cocinas

La consejera Begoña Pedrosa ha explicado recientemente que en los centros de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa se construirán seis nuevas cocinas in situ, y que en toda la red pública se prevé la instalación progresiva de cocinas zonales. Así las cosas, dado que hay que tener en cuenta lo firmado en el artículo 12 del convenio laboral de cocina y limpieza, y el impacto que tiene este tema, hemos solicitado que nos trasladen toda la información.

Nuevos puestos de trabajo y calendario

Por otro lado, hemos solicitado que se haga una previsión de la creación de nuevos puestos de trabajo que se derivan de la bajada de ratios y horas de trabajo del nuevo convenio laboral.

La administración, tal y como solicitamos desde LAB, está realizando la revisión de metraje de los centros y las nuevas obras.

Hemos solicitado el envío a las delegaciones la modificación de los criterios para la confección de los calendarios como consecuencia del nuevo convenio laboral.

Como consecuencia de la firma del convenio laboral en la mesa negociadora hemos iniciado varios procesos y negociaciones.

Por otro lado, se pospone la firma de los nuevos contratos fijos al mes de julio y hemos realizado propuestas para dar solución al problema de cobertura de las sustituciones.

Sustituciones

Ya se ha cerrado Ordezkaidea y le hemos recordado a la administración que las trabajadoras de limpieza siguen trabajando en julio y que tienen que hacer las sustituciones por teléfono. Así lo van a hacer y además han comunicado a las direcciones que tienen que pedir las sustituciones. Como en los últimos cursos, hemos solicitado la posibilidad de solicitar los días de asuntos particulares en los meses de septiembre y octubre.

La administración ha enviado a los centros el protocolo que solicitamos desde LAB ante las dificultades que existen para cubrir las sustituciones.

Tal y como hemos firmado en el convenio laboral, el próximo curso se mantendrán abiertas las listas de sustituciones. Hasta entonces hemos propuesto la posibilidad de inscribirse excepcionalmente sin titulación, estudiarán la propuesta.

Proceso de OPE por méritos

La firma de los contratos de fijeza se retrasa a julio, se firmará en las delegaciones presencialmente. A continuación se ofertarán los contratos que han quedado sin ocupar por las renunciaciones a la lista de reserva, según el orden y la elección que hayan realizado.

Por último, hemos solicitado que se celebre en julio una mesa negociadora para negociar las funciones, las adjudicaciones de personal de gestión de redes y sistemas informáticos y los puestos a crear en cocina y limpiezas y su adjudicación.